

Vicente Olabe Etxebarria

*Eibar, Gipuzkoa
(1911-2006)*

Aurkibidea

Biografia



Eibarren jaioa Bitor Sarasketa kalean. Jacinto Olabe artistaren semea. Ingeniaritza ikasi zuen Bilbon eta Alfako zuzendari izan zen urte askoan. Azken urteotan Bilbon bizi izan da. Toribio Etxebarria osabaren hiztegia aztertu eta landu du.

Zintak

EIB-002

• **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Areta Azpiri, Nerea - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2003-04-25
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k)**: Ariznabarreta, Gurutze
- **Emalea**: Sarasua Aranberri, Asier

EIB-003

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Areta Azpiri, Nerea - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2003-04-25
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar
- **Emalea**: Sarasua Aranberri, Asier

Pasarteak

1. Eibarren euskara zen nagusi

- **Erref**: EIB-002/003
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:03:00. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eibarren leku eta alor guztietan euskaraz egiten zen lehenago. Hala ere, bazeuden zenbait familia euren burua gorago ikusten zutenak eta gaztelaniaz hitz egiten zutenak.

Transkripzioa

-Ba, nik, lelengo esan gura dodana da, Eibarko euskerian gaiñian, gure epoketan, gure... euskeria, Toribiok esaten daben moduan, errezoia dauka, Eibar guztian eitten zan euskeria, ta danian, danian. Hori e, uste dot esaten dabela prologuan esaten dau hori, Eibarren danian eitten zan euskeria, ba... dendetan ta elizan ta aiuntamentuan ta juzgauan ta danian eitten zan euskeria orduan. Ta hori esan ebenetik galduta euan zeoze, baiña Eibarko euskeria, ba, familixa batzuk, euren burua pentsatzen ebenak, gehixao, pixkat handikixauak zirala, ez eben erabiltzen euskeria, kastellano eitten eben.

-Ta asko ziran halakuak?

-Ez, ez, ez Eibarren... zenbat egongo zian ba... dozena bat-edo dozena t`erdi-edo...ez euan e..., baiña bestian normala zan euskeraz eittia danak, danak euskeraz eittia.

-Baitta biharrian eta kalia eta...

-Bai, danian, biharrian ta kalia ta etxe barruan, "por supuesto" etxe barruan, bai, bai, bai.

2. Aita "Arraindi" kalean jaioa

- **Erref**: EIB-002/004

- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Gurasoak eibartarrak zituen. Aita "Arraindi" kalean jaio zen. "Arraindi" kalea non zegoen; inguruko eraikinak eta kaleak nolakoak ziren. Kale horretan arrandegiren bat egongo zela uste du kaleak izen hori izateko.</p>

Transkripzioa

- Nik aitta ta ama Eibarkuak nittuan. Aitta jaixo zan, ez dozue eukiko, seguru, kalia izena be, "Arraindi" kalia. "Arraindi" kalia, ez dakitt entzun dozuen sekula be. "Arraindi" kalia zan, "calle pescadería, Arraindegi", baiña "Arraindi", kalia esaten zetsan jentia. Ta ha zan kale bat izen euskalduna eukana, "Arraindi" kalia. Ta hori euan ba, parroixia, San Andres, harek oin daukan e, ha esplanadatxua, zerian sartu ta... haren parian euan etxe bat, Godoiena esaten eben, eskudo haundi batekin, ta gero haren etxian albuana, ba, barrenkalia, barrenkalia zan. Ta hantxe euan, hori etxiori, esan doguna, "Godoi". Ba, haren atzekaldian euan elizarutz paralelo, ba, "Arraindi" kalia. Ez dakitt aittu dozun, gitxi gorabehera.

-Bai, oiñ parkia dauan tokixan, ez? Parrokixa pareko parkia dauan tokixan.

-Bai, bai, bai, parkia-edo.

-Bai, justu, oin [...] justu...

-Bai, bueno, hantxe, bai.

-Eta esan dozu "Arraindi" kalia zala

- "Arraindi" kalia.

-Zegaittik zekan izen hori, badakizu?

-"Calle de la pescadería".

-Arraindegixak-edo zeren edo holakoren bat?

-Horrek, seguru, horrek eukiko ebana hori, dendaren bat edo beste egongo ziran "pescadería" esaten dana, arraiña saltzen ebenak. "Arraindegi" kalia horretxegaittik izango zan, zegaittik eze... Hantxe jaixua zan nere aitta "Arraindi" kalia.

3. Etxebarriatarren etxea "Txirixo" kalean

- **Erref:** EIB-002/005
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:09:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Ama Txirixo kalean jaio zen; zutik dago oraindik bere ama jaiotako eraikina. Bere birramonaren aita egin zuen eraikina alaba ezkondu behar zenerako. Bere ama anai-arrebatan zaharrena zen, eta lau anaia zituen ondoren. Eraikina nolakoa zen. Etxebarriatarren etxea zen, Toribio Etxebarria ere bertan jaio zen.</p>

Transkripzioa

-Eta ama?

-Ama be, ama be, Eibarren. Ha jaixo zan "Txirixo" kalia. Nere ama jaixo zan etxia oindiok zutiñik dao. Urte asko daukaz, baiña e... "Txirixo" kalia badakizu nun dauan, ezta? Ha plaza barritik begiratzen badozu "Txirixo" kalera, eskuma aldeko etxiak, harek dira zarrak, danak. Ta gure etxia ba, ondiok bastante dexente dao, pixkat txikixa da, baiña, ha ein eban, ba, neure bisabuelaren aittak ein eban. Bisabuela-edo, bai, horrek e...

-Ta han harrizko etxia...

-Harrizko etxia da, harri landua, baiña, euskeraz ez dakitt zela dan, baiña, "piedra arenisca" esaten jakona, harian antzerako koloria eukitzen dau horrek etxiorrek, bai.

Ta hori etxiori, nere ama jaixo zana ta Toribio ta danak, zegaittik eze, nere ama zan nausixena, ta gero lau mutil. E? Bera emakumia eta bestiak mutillak ziran danak, ta bat Txilera jua zan, baiña bestiak hemen geratu ziran bestiak, ta Toribio zan, ba, nere aman ondorian, tio Rafael, tio Aurelio ta tio Toribio gero zan, ta gero beste bat, Feliciano [...].

Ta hangotxia, Eibar Eibarkua zan etxia. Ta, ha, etxia ein eban nere aman amandriandako ezkondu bihar zanian aittak. Etxe horrek, eskillara politta dauka. Eskillaria, oin ez da egoten ataixa zabalik, baiña, atia, baiña eskillara politta dauka, bai.

-Eta hori ze zan, etxe osua zan Etxebarriatarrena, dana?

-Etxe osua zan, bai; bai, bai dana zan.

-Hor Toribio be, bertan jaixo ta Blas...

-Ta Blas ta danak hantxe jaixuak ziran.

-"Urredunanequak" be...?

-"Urredunanequak" bai, bai. Bueno "Urredunanequak" be ba, ez e... esango dotsut. Nere aittan generaziñokuak; nere aman generaziñokuak, e! Harek jaixo ziran. "Urredunanequak" ziran ba, nere tio batzuk, nere aman lehengusuak, tio Hilario bat, "Urreduna" esaten zetsena, "Urreduna". Tio Hilario, haren ondorian tio Gregorio, harek ez eban euki umerik be, ha ez zenduan ezautuko.

4. Toribio Etxebarriaren 'Lexicón' lanaren inguruko kontuak

- **Erref:** EIB-002/008
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:11:55. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Toribioren Lexicón lanaren inguruko azalpenak. Toribiok lana buruz eta emaztearekin batera egin zuela dio, eta horregatik igartzen direla zenbait huts. Toribioren emaztea, Claudia Arrizabalaga, "Ertzil" deitzen zitzaion familiakoa zen. Izen honen jatorria Aginaga auzoko izen bereko baserritik dator. Toribioren lanean nabaritutako hutsak betetzen ibili da bera astia zuenean.</p>

Transkripzioa

- Eta zuk badakizu Toribio zelan hasi zan lexikoia eitten eta zegaittik?

- Bueno, bai, berak esplikatzen dau hamen, ta igartzen jako zela ein daben, burutz einddakua da hau, burutz, ta horretxegaittik daukaz falluak, berba batzuk ez daukaz ipinita. Ta burutz eindda dauka, bere andrian laguntasunakin, tia Claudia, Eibarkua ha be, Arrizabalaga, Arrizabalaga. Horrek ziran beste familixa bat, Arrizabalagak, ba, "Ertzil" esaten zetsen haren familixiari, zegaittik eze, haren jatorrixa etorren, basarri bat, "Ertzil" dabena izena. Hori basarrixori egon bihar dau, ez dot ezagutzen, baiña, Ixutik bera Bariñara juaten, hantxe parajian egon bihar da, hantxe dao itxuria ha basarrixa. Handittik-edo datoz horrek. Bueno, hartzen dao, ezta?

- Bai, bai. Ta orduan bixen artian ein zebe Toribio eta...

- Bai bixen artian ein eben, ta horretxegaittik dakaz hemen fallo batzuk. Ta, gaiñera, ezaun dau zela dakazen fallo batzuk, zegaittik eze, hau eitteko ondo euan ba, naturalmente, alfabetuakin ein bihar da, alfabetuakin ta, sarritan, ez da izeten erreza, jarraitzia alfabetuari e, zuzen-zuzen, ta horretxegaittik daukaz, horrek e, fallo batzuk. Ta gero zela eitten daben berba bakoitxakin, frase bat, ejemplo moduan, ezta, e? Aitzen dozu, ezta? Ejemplo moduan bera berbia zela usatzen dan e, zela erabiltzen dan bera berbia, ba, han ejempluetan gero agertzen da, ha berbia, ahaztu jakona. Ta horrek berbok nik jaso ein nittuan ta hemen liburuan, neuretako honek ez zekan pretensiñorik ezebe, neure curiosidadiagaittik, neure curiosidadiagaittik, ha berbia ba, sartu eitten neban alfabetikamente barruan sartzen neban, ta gero ejemplo batzuetan agertu eitten zan. Nik goguan daukat, por ejemplo, nere amak "aurka" esaten eban "kontra", "kontra" "aurka", baiña gitxi usatzen da hori e, orduan be gutxi, ixa — euren sasoian be— aurka ixa juanda euan berba hori, "kontra", "kontra". Ta aitzen dozu, ezta ze esan gura dodan e? Ba, hori berbiori "aurka" gero ejemplo baten agertzen da, ta orduantxe hasi nitzan ba sartzen zela, ha, ez zeukan zerik e, azkenengo sartu neban berbia... Zer?

- Sekulako biharra hartu dozula orduan?

- Bai, bueno, denpora libria neukanian-ta, gustora... gustora irakurten neban ba, haren euskaria ederra zan.

5. Aurrekoek euskara hobea; Toribio Etxebarriaren ama

- **Erref:** EIB-002/009
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Bere aurrekoek euskara hobea egiten zutela dio, eta Toribio Etxebarriak ere bere aitak euskara hobea egiten zuela zioen. Toribioren ama Gasteiztarra zen eta ez zekien euskaraz, gurasoak euskaldunak izan arren. Aita, Ibarbia abizenekoa, Errezilgoa zen eta ama Azkoaga, Aramaiokoa.

Transkripzioa

-Ta gustora irakurten neban, ba, haren euskaria ederra zan, ederra euskaria! Gure aldian, gure aldian hobeto eitten eben euskeraz. Ta berak, tio Toribiok, esaten dau bere gurasuak hobeto eitten ebela. Bere gurasuak, bueno, bere aittak, bere aittak, zegaittik eze amak ez zekixan euskeraz, ama Vittorixakua zan, bai, ama Gasteizkua, ta, baiña euskalduna, aitta

Errejilgua zan aitta, Ibarbia. Horrek Ibarbiok Errejilen dare, "Los Ibarbia Cincunegui". Ta ama Aramaixokua zan; Aramiaxokua ama. Ta haregandik, ba nik eukiko dittut apelliduak Ibarbia, Zinkunegi ta Aramaixotik Azkoaga. -Eta amak ez zeban ikasi e, euskerarik ez zeban ikasi Eibarren, Toribion amak?
-Ez, ez, ez, baiña aittu bai eitten eban, aittu. Hainbeste urte ein zittuan eze Eibarren, entzuten, entzuten, aittu eitten eban, bai.

6. Euren senide Irustatarrak kanoiginak ziren

- **Erref:** EIB-002/010
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Bera mutikoa zela sarritan osaba Toribioren etxera joaten zen bazkaltzera. Toribioren amama Irustatarra zen. Irustatarrek sutegi batean lan egiten zuten kanoiak egiten. Toribiok ere ematen omen ditu kanoigintzaren inguruko azalpenak, baina ez berak zuzenean bere aurrekoei ikusita. Kanoiak nola egiten diren azaltzen du.

Transkripzioa

-Baiña, neu, precisamente, umia nintzanian neukan ohitturia bere etxera juaten nitzan inbitau barik bazkaltzera domeketan. Bai, bai, han agertzen nitzan bere etxian

-Garbantzuk jatera ?

-E?

-Garbantzuk edo...

-Ez, arrozakin, paellia ez, baiña ondo ipinita, ondiok be gustua be goguan daukat zelako gustua eukan harek arrozak, bai, bai, bai. Arroza lelengo platua ta gero beste zertxo bat, eta hantxe egoten giñan... Hor e, ba, gure horrek antepasauok, horrek e, Irustatarren etxia. Oin Irustatarrera joten dot berriz, e! Toribion aitta ta amandria, amandria zan Irusta, amandria Irusta. Horrek Irustatarrok ziran, liburu baten esaten dau Toribiok kaiñoigintzak, kaiñoigintzak. Aitzen dozu? Kaiñoigintzak, ezta? Horrek eitten eben biharra sutegi batekin, e! Sua, ba, "fragua" esaten jakona, sutegi euskeraz, ez da usatzen asko Eibarren berba hori sutegi, baiña, baiña... sutegi da. Han e, burdiña, tio Toribiok esaten dau zela eitten diran kañoiak, berak, ez e, gure, bere aurreraokuak, bere antepasaueri ikusitta ez, beste taillar baten ikusi ebala, hor itxi ein eben guriak, ta beste taillar bat ikusi ebala. Ta esaten dau tio Toribiok liburu baten txiste moduan esaten dala zulu eitten dala, ba, haixia hartu ta haxe, bueltak, bueltak emon hari. Haixia hartu e! Zirkularra, ezta? Haixia zirkularra ta bueltak emon hari. Aitzen dozu? Ta esaten eban e, eittez, errealidadian, ba, holaxe dala, zegaittik eze, hartzen dabela barilla bat, barilla bat, kalibria ba, emoten jako, kañoia zenbatekua ein bihar daben hamabikua-edo izango dana, barilla bat. Ta han sutegixan berotzen dabe, ba seguru ba, berotuko dabe mila ta egun-edo, mila ta berregun gradura-edo. Ta hari barilliari bueltak emoten jakoz, erdixan daukan e... bueltak, ta maillukiakin, mailluka fuertiakin, gizona be fuertia izan bihar, ez nere modokua! Ta ha, holaxek eitten zittuela kañoiak.

7. Kanoigintzan onenak Bustinduitarrak eta Irustatarrak

- **Erref:** EIB-002/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Kanoigintzan onenak Bustinduitarrak omen ziren eta haien atzetik Irustatarrak, euren senideak. Toribiok kontatzen omen du behin Madrilgo "Museo arqueológico"-an ikusi zituela Bustinduitarren kanoien muestrak. Bi kanoigin hauek euren zigilua zuten.

Transkripzioa

-Ha, holaxek eitten zittuela kañoiak, bai. Ta Eibarren, esaten dau, famarik haundiña ekenak kañoiak, kaiñoigintzak e, kaiñoigintzak, "fabricantes de cañones", ezta, zirala Bustindui, ta bestiok, euren e, bere aurrekuak, antepasauak horrek Irustatarrak bigarrenko firmia zala. Lelengo firmia, Bustindui, esaten dau. Toribiok esaten dau liburu baten "los Bustindui hasta fama internacional" eukela, ta ikusi zittuala baten "en el museo arqueológico" Madrilguan ikusi zittuala muestra batzuk horrek kañoienak, bai. Ta bai Bustinduinak eta bai gure antepasauenak bere sellua eukela,

bere sellua euken, bai. Ta gero laga ein etsen, ez dakitt zegaittik. Bueno, biharra be gogorra zan, biharra gogorra zan, biharra gogorra ta.

8. Toribiori Frantzian egon ostean areagotu zitzaion euskararekiko grina

- **Erref:** EIB-002/013
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:21:50. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Toribio Etxebarriak euskara maite zuelako hasi omen zuen hiztegiko lana. Gerra-ostean kanpora alde egin behar izan zuen eta Frantziara joan zen. Han harrituta geratu zen Burdeos euskarazko katedra zegoela ikusita. Orduetik aurrera euskararekiko interesa areagotu zitzaion eta denbora luzea eskaintzen zion euskarari.</p>

9. 1918ko alderdi sozialistaren kongresuan esandakoak

- **Erref:** EIB-002/014
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:23:30. **Bukatu:** 00:25:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- Politika » Gerra aurrea » 1914-1923: Monarkia

Laburpena:

<p>Gerra aurretik euskararen inguruko lanik ez zuen egin Toribiok, interes handiagoa zuen politikarekiko. 1918an alderdi sozialistak kongresu bat egin zuen eta berak bertan adierazi zuen Euskal Herriak autonomia gehiago behar zuela. Hala ere, gaztelania ez omen zuen baztertzen urrezko aroko espainiar idazle klasikoen lanak asko gustatzen zitzaizkion eta.</p>

10. Venezuelen atzerriratuta eta Eibar gogoan

- **Erref:** EIB-002/015
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:25:00. **Bukatu:** 00:26:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Toribiok Eibarrekin asko gogoratzen zelako egin zuen "Lexicón" lana. Venezuelan zegoen atzerriratuta, baina batzuetan Hendaiara etortzen zen. Han zegoen batean bisitan joan zitzaion bera familiarekin. 1966 inguruan itzuli zen Eibarrera eta senideek kontatu zioten Eibarren sartzeaz bat negarrez hasi zela.

11. 1966an Alfa lantegia berri-berri

- **Erref:** EIB-002/017
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:29:40. **Bukatu:** 00:33:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

<p>Berak lagundu zion Toribio Etxebarriari Alfa lantegia bisitatzen, Eibarrera etorri zen garaian, eta harrituta geratu zen enpresak izan zuen aldaketarekin, asko modernotuta zegoelako. Handik 15 egunera Salinas Argentinan errefuxiatuta egondako altsasuarrarekin berriz joan ziren Alfa ikustera. Alfa berri-berri zegoen 1966 inguruan, Blas Etxebarriaren laguntzaz, "Banco de Guipúzcoa"-ren diru-laguntzak jaso zituen eta.</p>

12. Olabetarren izakera; Jacinto Olabe dibujo eskolako zuzendari

- **Erref:** EIB-002/018
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:35:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Blas Etxeberria oso gizon ona omen zen. Bere aitak zioen Etxeberriatarrak pertsona onak zirela; Olabetarrak, oster, zitalak ziren. Bere aita, Jacinto Olabe, Eibarko dibujo eskola munizipaleko irakasle eta zuzendari izan zen. Ikasle mutilak nahi izaten omen zituen; hala ere, emakumezko asko ibiltzen zen.

13. Jacinto Olabe Argentinan hasi zen marrazketa ikasten

- **Erref:** EIB-002/019
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:35:10. **Bukatu:** 00:39:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Aitaren osaba batek almatzen bat zabaltu zuen Argentinan eta harengana joan ziren senideak, aita 9 urte zituela. Han hasi zen marrazketa ikasten irakasle hungariar batekin. Bere aita zen zaharrena eta Argentinan zeudela beste 3 anai-arreba jaio ziren. Aita hil zitzaizenean Eibarrera itzuli ziren. Marrazketarekin jarraitzeko gogoaz zuten, Madrilera joan zen ikastera aita. Han ahal bezala ibiltzen zen dirurik ez zuen eta. Hala ere, Isasiko markesak laguntza eman zion.

14. Madrilén marrazketa ikasten zuten euskaldunak; Aurelio Artetarekin harremana

- **Erref:** EIB-002/021
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:41:50. **Bukatu:** 00:45:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

Aitak 4-5 urte egin zituen Madrilén marrazketa ikasten. Orduan ez zen ohikoa hori. Eibartik joandako bakarra zen, baina euskaldun gehiago aurkitu omen zituen han: Bizkaiko Arruetarrak, Lezoko Elias Salaberria, Bilboko Aurelio Arteta... Aurelio Artetaren inguruko kontuak. Behin gerra-aurrean aitarekin Bilbon zebilela Artetarekin topo egin zuten. Artetak zioen Olabe izan zela bere lehen maisua, haren lanari begira egoten zelako klaseetan.

15. Damaskinatu lantegia zabaltu arren, marrazketa ez zuten baztertu Jacinto Olabek

- **Erref:** EIB-002/023
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:46:20. **Bukatu:** 00:49:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Aitak ez zuen etorkizunik ikusten marrazketarekin eta Eibarrera itzuli zenean Agustin Larrañaga lehengusuaren lantegian hasi zen lanean. Estazio kalean zegoen lantegia eta bertan ikasi zuen ofizioa: grabatua, damaskinatu. Lan hori ikasitakoan bere tailer propioa jarri zuen. Kritikoak nahiko zorrotzak izaten ziren bere aitaren lanarekin ez zelako marrazketara bakarrik dedikatzen. Marrazketa pixka bat utzi arren, enkargu guztiak hartzen zituen eta inoiz ez zuen guztiz utzi. Aitak tailerra zuelako joan ahal izan zen bera ingeniarietza ikastera.

16. Ingenieritza industrialak ikasi zuen hirugarren eibartarra

- **Erref:** EIB-002/024
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:49:30. **Bukatu:** 00:51:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

Aitak tailerra zuelako joan ahal izan zen bera ingenieritza ikastera. Orduan ez zegoen gaur egungo erraztasunik eta "Patrona"-n bizi izan zen Bilbon ikasten zegoen denboran. Eibarren beste bi ezagutzen ditu bera baino nagusiagoak ingeniaritza industrialak ikasitakoak. Bi horiek euren tailerra zuten, baina berak ikasketak bukatu zituenean krisi gogorra egon zen eta ez zuen lanik aurkitu, egoera zaila zegoen eta.

17. Eibartik Bilbora ikastera joatea gogorra

- **Erref:** EIB-002/025
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:51:40. **Bukatu:** 00:53:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Eibartik Bilbora joatea ikastera gogorra izan zen berarentzat, asko gogoratzen zelako bere jaioterriarekin. Gaur egun Bilbora ikastera etortzen diren gazteak nola ikusten dituen kontatzen du.

18. Fraideak Eibarrera etorri zirenean haraxe eskolara

- **Erref:** EIB-002/026
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:53:50. **Bukatu:** 00:58:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Eskola municipalak non zeuden Eibarren. Umea zela amak etxean irakasten zizkion alfabeto eta silabak. Sei urterekin haur eskolan hasi zen doña Paka Mendia irakaslearekin eta zortzi urte ingururekin eskola munizipalera pasatu zen. Berak 10 urte inguru zituela fraideak etorri ziren Eibarrera eta eskola publikotik aterata han sartu zituen aitak bera eta anaia. Frantsesak zirenez fraideak, frantsesa ikasi zuten.</p>

19. Fraideek galderak egin zizkieten taldeak osatzeko

- **Erref:** EIB-002/028
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:59:55. **Bukatu:** 01:01:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Fraideak Eibarrera etorri zirenean, ikasle asko zituzten sartzeko prest eta galderak egin zizkieten aukeraketa egin eta taldeka jartzeko. Berak nagusiago batzuk baino gehiago zekien eta nagusien gelan jarri zuten. Fraideak etortzean herria aztoratu zen. Aurretik ere beste fraide batzuk izanak ziren Eibarren.

20. Bi urterekin difteriaz sendatu zen

- **Erref:** EIB-003/001
- **Iraupena:** 0:05:11. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:05:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Anaien artean hika egiten zuten baina gurasoekin ez. Ahizpa bat eta hiru anai dira. Bostgarren anai bat izan zuen eta difteriaz hil zen. Vicente ere difteriaz gaixotu zen eta ama gogoratzen du bere ohe ondoan negarrez. Gaixotasuna nolakoa zen eta nola sendatu zen kontatzen du.

21. Aeroplanoa Eibartik bueltak ematen

- **Erref:** EIB-003/003
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:05:26. **Bukatu:** 00:08:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Umetako lehenengo oroitzapenak kontatzen ditu. Eibarren aeroplano bat ibili zenekoa. Berak uste zuen hegan egiten zuen gurutze bat zela. Aeroplanoa frantziarra zen eta Otolá baserriko zelaian lurreratzen zuen.

22. Aeroplanoaren lurreratzea Txaratik ikusten

- **Erref:** EIB-003/004
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:08:23. **Bukatu:** 00:12:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Bederatzi urte zituenean, San Juanetan, aeroplano bat lurreratu zen Eibarren. Anai nagusiarekin joan zen Txarako lurretara (Jardinetatik gora) hura ikustera. Aeroplanoa, lurrean zegoela, apurtu egin zen eta piezak bagoi batean sartu zituzten. Vicente Estaziño kalean bizi zenez, bertara joaten zen piezekin jolastera.

23. Eztaziño kaleko umeen gaiztakeriak

- **Erref:** EIB-003/005
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:12:25. **Bukatu:** 00:15:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Eztaziño kalean bizi zen eta lagunak ere bertakoak zituen. Geltokiko tunelean jolasten zuten eta baita grua baten inguruan ere. Bihurrikeri asko egiten zituzten.

24. Eskupilotan asko jolasten zuten

- **Erref:** EIB-003/007
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:16:16. **Bukatu:** 00:19:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Hamabost urtera arte eskupilotan asko jolasten zuten. Edozein horma erabiltzen zuten, baina normalean frontoi zaharrean jolasten zuten. Bilbora ikastera joan zenean, jolasteari utzi zion. Tortoloetara emakumeek jolasten zuten. Garai bateko pilotariak. Gallastegi. Futbolean jolasten eskasa zen.

25. Karburoarekin petardoak egiten

- **Erref:** EIB-003/009
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:21:51. **Bukatu:** 00:22:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Karburoa lapurtzen zuten inguruko tailerretan eta pote baten sartzen zuten urarekin batera. Horrek gas bat sortzen zuen eta petardoak egiten zituzten.

26. Areatzan bainatzen ziren, Indianokuaren ondoan

- **Erref:** EIB-003/010
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:22:53. **Bukatu:** 00:26:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Matxariako errekan bainatzen ziren. Erdialdeko haurrak, Areatzan bainatzen ziren eta hor ere ura garbia zen. Zonalde hori nolakoa zen kontatzen du. Areatza zergatik deitzen zitzaion. Haur gehienek igerien zekiten.

27. Arraindegi eta Barrenkale kaleak

- **Erref:** EIB-003/011
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:26:50. **Bukatu:** 00:28:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Arraindegi kalea, Barrenkalia, eliza inguruak... nolakoak ziren.

28. Medikuaren txaleta eta kunboa

- **Erref:** EIB-003/012
- **Iraupena:** 0:05:35. **Hasi:** 00:28:41. **Bukatu:** 00:34:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Gaur egun Bizikleta Plaza dagoen lekuan, elizari pegatuta txalet bat zegoen. Ziriako Agirre medikuaren etxea zen. Dos de Mayotik gora, tunel bat eta kunboa zeuden. Kunboa nolakoa zen kontatzen du. Jende asko bertan garbitzen zen.

29. Ziriako Agirre medikua

- **Erref:** EIB-003/013
- **Iraupena:** 0:07:51. **Hasi:** 00:34:16. **Bukatu:** 00:42:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:

Behin, lagunekin "Salon Teatron" zegoela, ondoezik sentitu zen Vicente. Tifusa zuela esan zioten eta Ziriago Agirrek sendatu zuen. Oso gizon ona zen. Urtero jai bat antolatzen zuten etxean. Ontzi batean zegoela, beste hainbat pertsonekin batera galdu zuen bizia Ziriago Agirrek, Debako barraren kontra jo zirenean. Antza, bihotzekoak jota hil zen eta ez itota.

30. Kalamuara eta Urkora igotzeko ohitura

- **Erref:** EIB-003/015
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:42:39. **Bukatu:** 00:44:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Kalamuara eta Urkoara joateko ohitura zuen.

31. Aiton-amonak, Urkiko ermitaren sakristau eta serora

- **Erref:** EIB-003/016
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:44:54. **Bukatu:** 00:48:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Umetan ez zuen mendira joateko zaletasunik. Txirio kalean bizi ziren bere aiton-amonak mendirako afizioa zuten eta perretxiko bila joaten ziren. Nicanor zuen izena bere aitonak. Amonarekin batera, Urkiko ermitaren ardura zuten. Inguruan "Urkidi" izeneko dorre bat zegoen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com